

zuzendariari

(0034) 943 300 222

OHARRA: Ahalik eta iritzi gehienek izan dezaten tokia, ez da komeni makinazko 15 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Idatzi duenaren izena, telefonoa, helbidea eta NAren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izanez gero, zuzendaritzak bere esku du horretarako eskubidea. Erdaraz iristen diren gutunak ez dira argitaratuko.



zuzendariari@egunkaria.com



Gudarien etorbidea, z/g 20140 Andoain

Maiatzeko Plazako Amak borrokan egiten dutenekin bat

Carlos Aznarez eta Willy Nocetti
(Maiatzeko Plazako Amen aldeko Euskal Herriko taldearen izenean)

Arrazoi du Eduardo Gleanok bere azkeneko liburu arrakastatsuan mundua hankaz gora dagoela esatean. Argentinako poeta ezagun Enrique Santosek *Cambalache* tango paregabean kantatzen zuen bezala «Bibliak berogailuaren ondoan egiten du negar». Mundua hankaz gora dago, bai: Ermuko ultraeskuindarrek, Terrorismoaren Biktimen Elkarteko haien lagunek, Savater eta enparauen *Aski da*-koek beste plataforma bat eratu dute, eta *Askatasuna* izena jarri, gainera. Jendaurrean aurkezteko kalera aterako dira, era guztietako uniformedunez inguratuta, jakina, bere burua demokratia eta tolerantzat dutenei dagokien bezala.

Frankismo garaira itzuli nahi luketen PP eta PSOEko boto emaile horiei Argentinako bi talde gehitu zaizkie —hala adierazi dute, behintzat, antolatzaileek—: Maiatzeko Plazako Amak eta Amonak—fundatzaileak—, eta holokausto nazitik bizirik irten ziren zenbait pertsona.

Alabaina, tolerantzak ez dira hain tolerante; ahal izanez gero, itsasoan itoko lituzkete gure herriarentzat independentzia eta sozialismoa eskatzen duten guztiak. Amona eta ama horiek ere ez dira Maiatzeko plazako gure ama maite, solidario eta iraultzaileak, Espainiako Estatuaren izaera faxista horrenbestetan salatu dutenak, Hebe de Bonafini buru zutela Euskal Presoei elkartasuna agertu zietenak.

Amona eta ama fundatzaile horiek —oraindik orain Joan Manuel Serrat eta Telefonikako eta Endesako funtzionarioekin batera euskal borrokariak gaitzesteko bildu ziren Buenos Airesen— ez dira Argentinako gure kide militanteen ordezkari. Militante horiek hemengoak bezalako gazteak ziren, eta hitzak eta armak erabiliz egin zuten borroka faxismoaren aurka esplotatu eta esplotatzailerik gabeko gizarte bat lor-



galdeiozu...

Mayor Orejarekin orain bezala jarraituko dugula esatea ez al da azken 20 urteotan ezer ez dela aurreratu esatea?

Manu Aranburu (Beasain)

Marko autonomikoaren azken geltokia litzateke Mayor Oreja lehendakari baskongadoarena, horrek behin betiko argitu lukeelako markoaren diseinua espainiarra dela eta horren helburu bakarra Euskal Herria espainiar ordenamenduaren menpe zatikaturik edukitzea dela.

Horren froga garbia Konstituzioaren 155. artikulua da, non garbi adierazten den, Estatutuaren konpetentziak Konstituzioaren aurka erabiltzen badira, Estatuak berak aukera duela konpetentzia horiek berreskuratzeko. Galdera, beraz, sinplea da: 22 urte hauetan zergatik ez du horrelakorik egin? Arriskurik ikusi ez duelako, PNVk Espainiaren interesen mesedetan egindako lanagatik. Eta orain zergatik aipatzen da 155 artikulua egokitasuna? 1998an zabalduko prozesuaren ondorioz, marko horren inguruan alarma guztiak piztu direlako.

Hala ere, garbi izan EHk bere giltza erabiliko duela Mayor Orejak ordezkatzeko duen proiektua porrotera eramateko, behin betiko Euskal Herriari begira marko berri bat egituratu. Zazpi gelako etxea eraikiko dugu Europan, jabegoa euskal herritar guztion esku izango da, eta ez dugu alokairuan bizi beharko, *euskañol* autonomo moduan. Eta egingo dugu, la-sai egon.



ARNALDO OTEGI

EHko Gipuzkoako zerrendaburua



EAEko hauteskundeak

Maiatzaren 13ko EAEko hauteskundeetara aurkezten diren alderdi politikoetako hautagaiekin jarraituz, apirilaren 24tik aurrera **Maria San Gil** • **PPeko Gipuzkoako zerrendaburua** izango dugu. Bidali zure galderak ordurako.

tzeko; herriaren nortasunaren, subiranotasunaren eta herri guztien autodeterminazioaren alde egin zuten. Borroka horri koherentziaz eusteagatik 30.000 anaia-arreba torturatu eta hil zituzten Argentinako militar eta polizia.

Herrien borrokari ez dio mesederik egiten Maiatzeko Plazako Amen jokabidea nahasteak, beti egin baitute zapalduen giza eskubideen alde. Badakigu elkarte hori on-

do ezagutzen dutenak, elkartearen ibilbidea jarraitu dutenak —presoen aldeko elkarretaratzetan parte hartu dute, Senideekin bildu dira, eta hamaika ekimenetan hartu dute parte— ez direla nahastuko.

Eskuineko konkistatzaileek jarrai dezatela biktimaarena egiten hauteskunde kanpainan. Hala eta guztiz, ez dute aurrera egingo; Maiatzeko Plazako Amek esaten duten bezala: «Gure seme-alabek iraultzaile

sortu gintuzten eta orduz geroztik borroka egiten dutenen alde egiten dugu, bai Argentinan, bai kanpoan». Beste guztia harri azpitik botoak ateratzeko eta abertzaleak ahalik eta gehien estutzeko amarrua besterik ez da.

Itoizko urtegiak kalte egindakoak

Aritz Lareki Burguete (*Ilunberriko Gazte Asanbladaren izenean*)

Ilunberriko Gazte Asanblada osatzen dugunok, herriko 70 gaztek, gure iritzia azaldu nahi dugu Arturo Rebollok landutako txostenak bildutakoari buruz. Rebollorekin arazoa, oso arriskutsua da urtegia urez betetzea.

Ezin dugu ulertu inguruneke udal ordezkariak ezer egin ez izana bizilagunek jakin dezaten txostenak biltzen duena, eta urtegia urez betetzeak ekarriko dituen ondorioak. Eta Nafarroako Gobernua zer? UPNko jaun-andreak gai izango ote dira baimena emateko urtegia urez bete dadin?

Aznarren gobernuak eta Ebroko Konfederazio Hidrografikoak azalpenak eman beharko dizkiete herritarrei, eta Rebollorekin txostena egia ez bada, hori argitu beharko liekete. Baina beldur gara erakunde haien artxiboetan gordeta jarraituko duela guztiak; bai, behintzat, urtegiko malden konposizioa arriskutsua dela dioten agiriak badaude, eta horiek urte guztian ezkutuan egon badira.

Itoizko Koordinadorako ordezkariak Nafarroako Legebiltzarrean hitz egin dezatela eskatzen dugu, Rebollo eta Casas jaunek lagunduta. Bi horiek prest daude zalantzak argitzeko, informazio zabala emateko eta landu duten agiria 1989an Nafarroako Gobernuako teknikariek osatutakoekin alderatzeko.

Zuzenketa:

Gaurko Nafarkariako alean Elizondan egingo den Udaberriko feria igandean izango dela dago iragarrita. Baina azoka berezia gaur izango da.

montxo

